



TOPAKETA / JORNADA

ONDAREA

SARETZEN

Bizkaia Aretoa, Urriak 6 de octubre, 2023

Kultura Ondarearen Ekosistema saretzen
Tejiendo el Ecosistema del Patrimonio Cultural



TOPAKETAREN AZTERKETA
ETA ONDORIO OROKORRAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

eman ta zada: zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES

KREDITUAK:

ONDAREA SARETZEN. TOPAKETAREN AZTERKETA ETA ONDORIO OROKORRAK

EDIZIOA:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/ EHU

EGILEAK:

Alazne Porcel Ziarsolo
Itxaso Maguregui Olabarria
Enara Artetxe Sánchez
Katrín Alberdi Egües
Erika Tarilonte Pérez
Jose Luis Larrañaga Odriozola
Marta Barandiaran Landin

ITZULPENA:

UPV/EHU

AURKIBIDEA

LABURPENA	3
ONDAREA SARETZEN	4
PROGRAMA	6
AURKEZPENAK	7
EZTABAIDA TALDEAK	13
ONDORIOAK	26
ERANSKINA	28



LABURPENA



Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak antolatutako **ONDAREA SARETZEN** jardunaldiak hainbat eragile, profesional eta erakunde bildu zituen 2023ko urriaren 6an, Euskadiko kultura ondarearen sektorean interkonexio eta lankidetzasarea indartzeko eta gure kultura ondarearen inguruko eragile-sare formala osatzeko oinarriak ezarri eta bideratzeko helburuarekin.

Ekitaldi honek [CHARTER](#) proiektu europarrak hasitako lanarekin jarraitzen du. Proiektu horren esparruan, kultura ondarearen sektorean inplikaturako eragileen bilaketa eta mapa egin zen, baita horrekin lotutako hezkuntza gaitasunak identifikatu ere. Jardunaldian parte hartu zuen Lluís Bonet Agustí-k, proiektuko koordinatzaileak azaldu zuenez, 2021etik euskal ekosistema aztertzeke egindako lanak agerian utzi zuen sektorea erabat sakabanatua zegoela eta lankidetzasareak indartzeko beharra zegoela.

ONDAREA SARETZEN jardunaldian zehar kultura ondarearen sektorearen egungo egoera aztertzen saiatu ziren eta UPV/EHUk egindako eragileen mapaketaren emaitza erakutsi zen. Ondoren, ezagutza trukatzeko asmoz, zenbait ekimen instituzional aurkeztu ziren. Alde batetik, zenbait ekimen instituzional aurkeztu ziren foru-aldundien eskutik eta, bestetik, hainbat lankidetzaredu eta sareen kudeaketa elkarrean eskutik: GKZE – Gipuzkoako Kontserbatzaile eta Zaharberritzaileen Elkarteak, KUNA – Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarteak eta EHMBE – Musika Bulegoaren eskutik. Bestalde, KSIgune klusterrak kultura eta sormen industriaren (KSI) ekosistemarekin, Unibertsitatearekin eta Euskal

Autonomia Erkidegoko goi-mailako hezkuntza-zentroekin lotzeko aukerak azaldu zituen.

Amaitzeko, eztabaida-taldeak eta jardunbide egokiak trukatzeko dinamikak egin ziren, ehunaren ikuspegi zabalagoa eta haren diagnostiko orokorra lortzeko.

#ONDAREASARETZEN


KULTURA ONDAREAREN EKOSISTEMA: SAREAK ANTOLATZEKO TOPAKETA

Jardunaldian azaldu zen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak kultura ondarearen kudeaketan eta kontserbazioan inplikaturako eragile ugari ditu eta horien helburua ondarea babestea eta zabaltzea da. Hala ere, Europako [CHARTER - Kultur Ondarerako Eskumenen Europako Aliantza](#) proiektuaren esparruan, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren artean 2021ean egindako lanak, intereseko talde eta eragileak bilatu eta detektatzeko, agerian utzi zuen sektorearen sakabanatze-egoera eta lankidetzaren sareak indartzeko beharra.

KULTURA ONDAREAREN SAREA EHUNDUZ

Proiektu europarrak ezarritako testuinguru horretan **ONDAREA SARETZEN** jardunaldia sortu zen, kultura ondareak sektore gisa dituen beharrak definitzeko eta eragileen arteko interkonexio eta lankidetzaren sare bat egituratzeko lehen urratsak emateko sektorean parte hartzen duten eragileen eta interes-taldearen arteko truke- eta sakontze-topaketa gisa.

Topaketa honen helburu nagusia **Euskal Kultura Ondarearen ekosistemaren parte diren lan-esparruak, interes-taldeak eta inplikaturako zeharkako eragileak ezagutzea izan zen**, ehunaren ikuspegi zabalagoa eta haren diagnostiko globala lortzeko.



NORI ZUZENDUTA ZEGOEN TOPAKETA?

Administrazio publikoko profesionalak, enpresa txikiak, autonomoak eta elkarteak; museoetako administratzaileak eta langileak; ondarearen interpretazioko eta kudeaketako ikertzaileak eta profesionalak; arkitektoak, arkeologoak, zaharberritzaileak eta hezitzaileak; araututako eta arautu gabeko prestakuntzako irakasleak eta eragileak... eta ondarearekin zuzenean edo zeharka lan egiten duen edonori.

1. IRUDIA. Topaketako parte-hartzaileak Bizkaia Aretoko Baroja Auditorioan



PROGRAMA

9.00 - 9.30	Erregistroa Registro
9.30 - 9.45	Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpena. Bienvenida y presentación de la Jornada.
9.45 - 10.15	Kultura-ondarearen Ekosistema... egoeraren auzia eta eragileen mapeoa. El ecosistema del Patrimonio Cultural en el País Vasco... situación actual y resultados del mapeo de agentes.
10.15 - 11.00	Kultura Ondarearen Kudeaketa administratibotik: Foru Aldundiak. La gestión del Patrimonio Cultural desde la Administración: Diputaciones Forales.
11.00 - 11.30	Kafea Café
11.30 - 12.00	Konexioak eta sareak Euskal Herriko Sormen eta Kultura Industrietan... nola atera etekina Kultura Ondaretik? Conexiones y redes de las Industrias Culturales y Creativas en el País Vasco...¿ cómo lo aprovechamos desde el Patrimonio?
12.00 - 13.00	Lankidetzeta eta kudeaketa modeloak eta ereduak. Modelos y ejemplos de colaboración y gestión en redes.
13.00 - 14.00	Eztabaida Taldeak. Kultura ondarearen ekosistema eta konexio sareak. Grupos de Debate. Ecosistema del Patrimonio Cultural y redes.
14.00 - 15.30	Lunch + KONEXIO kafea Lunch+ Café CONEXIONES
15.30 - 16.15 16.15 - 16.30	Topaketaren Emaitzak. Resultados de la Jornada. Topaketaren itxiera. Cierre.



Jardunaldiaren lehen zatian, kultura ondarearen sektorearen egungo egoera eta eragileen mapatzearen emaitza aurkeztu ziren eta, ondoren, jakintza trukatzeko, ekitaldi horrek zenbait ekimen instituzional aurkeztu zituen Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundien eskutik.

MIKEL AIZPURUK (Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza) inauguratu zuen topaketa. Euskal ondarearen ikuspegi orokorra eta erronkak aurkeztu zituen eta elkarlanerako eta harremanetarako sareak sortzeko beharra azpimarratu zuen.

MARÍA JUNCAL GUTIÉRREZ MANGADOK, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko errektoreordeak, ongietorria eman eta eskerrak zizkien topaketara bertaratutakoei eta haien parte-hartzeagatik, unibertsitatearen eta gizartearen artean loturak ezartzeko eta elkartzeko ekitaldiak antolatzearen garrantzia azpimarratuz eta bi aldeen garapenean eta aurrerapenean duen garrantzia azpimarratuz.

ONDAREA SARETZEN ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondarearen arloekin zerikusia duten eragileak konektatzeko sare bat ezartzea helburu duen ekimen gisa aurkeztu zen, [CHARTER - Kultur Ondarerako Eskumenen Europako Aliantza](#) proiektuaren lehen etapan egindako agenteen detekzio-lana oinarri hartuta. Horren esparruan egin zen mapaketa eta ondorengo elkartzea.

Horretarako, **AINHOA BERNABÉ ARANBERRIK**, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikariak, eta **ALAZNE PORCEL ZIARSOLOK**,

UPV/EHUko Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduako irakasleak, kultura ondarearen sektorearen egungo egoera eta UPV/EHUK egindako agenteen mapatzearen emaitza (**2. IRUDIA**) aurkeztu zituzten.



2. IRUDIA. Kultura Ondarearen ekosistema integratutako profesionalen taldekatze proposamena **J. ERANSKINA**)

Bestalde, **LLUIS BONET AGUSTÍ** (Bartzelonako Unibertsitatea) **CHARTER** proiektuaren koordinatzaileak proiektuaren hasieratik egindako lana erakutsi zuen. Era berean, adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondarearen inguruan egindako azterketak agerian utzi zuela sektoreari eragiten dion sakabanatze-egoera, eragileen eta lankidetzaren arteko loturak sortzeko eta indartzeko beharra agerian utziz eta ekitaldiaren antolaketa goraipatuz.

Lehen aurkezpen horien ondoren, foru-aldundietako ordezkariak beren lurraldeetako Kultur Ondarearen egungo egoera azaldu zuten, baita gaur egun ondare hori kudeatzeko dauden tresna eta mekanismoak ere.

JAVIER FERNANDEZ BORDEGARAI, Arabako Foru Aldundiko Museoen eta Arkeologiaren Zerbitzuko burua, **ALBERTO SANTANA EZQUERRA**, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua, eta **XABIER KEREXETA ERRO**, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroko arduraduna, hiru probintzietan gaiaren egoera azaltzeaz arduratu ziren.



3. IRUDIA. Foru Aldundietako ordezkariak lurralde bakoitzeko egoeraren auzia aurkezten

Herri-administrazioaren espazio eta zerbitzuetatik kultura ondarearen kudeaketari buruz egindako lana azaldu ondoren, **KSIGUNEK**, Euskadiko Kultura eta Sormen Industrietarako Klusterrak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren arteko lankidetzatik sortua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura eta sorkuntza-industriekin (KSlak) lotutako konexio eta sare-proposamen batzuk aurkeztu zituen, kultura-ondarearen sektorean duten aplikagarritasuna baloratu eta kontuan hartzeko.

RUTH MAYORALEK, KSIgune klusterreko arduradun operatiboak, KSlen ingurunearekin eta EAEko unibertsitate- eta goi-mailako hezkuntza-zentroekin loturak ezartzeko aukerak nabarmendu zituen, goi-mailako hezkuntzako ikastetxeen eta Euskadiko kultura- eta sorkuntza-sektoreetako eragileen arteko lankidetzan oinarritutako prestakuntza- eta transferentzia-proiektuak babestuz eta bultzatuz.

Kultura Ondarearen sektoreari dagokionez, Ruthek azaldu zuen moduan “ *Euskal Goi Mailako Hezkuntzan ordezkari-tza handiena duen Kultura eta Sormen Industrien (KSI) sektorea Ondarea dela. Euskadin, KSlekin lotutako prestakuntza, ikerketa eta transferentzia-gaitasunen % 18k lehentasunezko harremana duela ondarearekin*”¹



FIGURA 4. Ruth Mayoral KSIgune Klusterrean egindako lana aurkezten

Goizeko azken saioan, elkarlanerako eta sareak administratzeko hainbat eredu aztertu ziren. Horretarako, kulturaren arloko hiru elkarte-eredu aurkeztu ziren, **GKZE** – Gipuzkoako Kontserbazio eta Zaharberritze Profesionalen Elkartea,

¹ KSIgUNE berriak. ksiGune 11 Octubre 2023. Colaboración y trabajo en red en el sector del patrimonio cultural vasco. En: <https://www.ksigune.eus/es/colaboracion-y-trabajo-red-sector-del-patrimonio-cultural-vasco>

KUNA – Gestión cultural de Navarra eta **EHMBE** – Musika Bulegoa erakundeen eskutik.

NURIA ÁLVAREZ AJURIAK aurkeztu zuen [KUNA](#)k Nafarroan egindako lana. Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte 1990ean sortu zen, eta administrazio publikoan zein sektore pribatuan lan egiten duten kultura-kudeatzaileak biltzen ditu. Gaur egun, elkarte 78 profesionalak osatzen dute. KUNA gizarte-zerbitzuko tresna eta erreferentzia-esparru gisa sortu zen, lanbide-jardunetik eratorritako egoerei aurre egiteko orduan kultura-kudeaketako profesionalaren autonomia eta independentzia indartzeko.

AITOR BENGOETXEAK beste eredu finkatu bat erakutsi zuen jarraian: [EHMBE](#) Musika Bulegoa, musika sektoreko eragileen arteko elkartze eta elkarlanerako gune irekia, Euskal Herrian sortu eta ekoiztutako musika bultzatu eta indartzeko sortua.

Euskal Herriko Musika Bulegoa – Musika Bulegoa – Euskal Herriko musika jardura sustatu eta hobetzeko lankidetzaren sektorialeko proiektu estrategikoa da. Izaera kulturala duen proiektu honek Euskal Herrian sortutako musika jartzen du erdigunean eta helburu nagusi hauek ditu: sektoreen eta zerbitzuen topagunea eraikitzea, Euskal Herriko musikari kalitatezko irudia proiektatuko duen marka eta euskarria ematea eta interes orokorreko ekintzak eta proiektuak garatzea ahalbidetuko duen tresna izatea.

EMBHE [Kultura Live](#) (Euskal Herriko areto pribatuen elkarte), [MIE](#) (Musika Industria Elkarte), [Musikari](#) (Euskal Herriko Musikagileen Elkarte) eta [Musikagileak](#) (Euskal Herriko Musikagileen Elkarte) elkarteek osatzen dute.

Bulegoaren izaera kultural, kolektibo eta irekiak ahalbidetu du hasieratik Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta, horrela, azken urteotan garatutako helburuen eta lankidetzaren dinamiken jarraipena ziurtatu da.

Aurkeztu zen hirugarren elkarte duela gutxi sortutako **GKZE** Gipuzkoako Kontserbatzaile eta Zaharbertzaileen Elkarte izan zen. **GARAZI VALVERDE** egungo presidentea eta **ITSASO LABARI** eta **PILAR DE LA SERNA** bazkideek duela bi urte irabazi asmorik gabeko elkartearen sorrera eta beharra azaldu zuten. Gaur egun, Gipuzkoako Kontserbazio eta Zaharbertze arloko 18 profesionalak osatzen dute eta Gipuzkoako Lurralde Historikoari atxikita dago.

GKZEren helburua Kultura Ondarearen kontserbazioa eta zaharbertzea garatzea eta sustatzea da, gizarte osoaren interes orokorreko kultura ondare guztiaren zaintza, epe luzerako kontserbazioa eta gizarte-erabilera jasangarria sustatuz. Era berean, administrazioaren organo aholku-emaileekiko lankidetzara sustatu nahi dute, bai kontserbatzaile-zaharbertzaileen lanbideari bai ondarearen kontserbazioarekin zerikusia duen beste edozein gairi eragiten dioten xedapenak egiteko orduan, bai eta kontserbatzaile-zaharbertzaileen lanbidearen gizarteratzea eta lan aintzatespena defendatzeko ere.

Aurkezpenen ondoren, eztabaida-mahai labur bat ireki zen, eredu bakoitzak gainerakoetatik atera zitezkeen alderdi positiboak aztertzeko eta, bestetik, Kultura Ondarearen sektorean duen aplikagarritasuna aztertzeko.



5. IRUDIA. Lluís Bonet aurkeztutako elkarte ereduaren arteko eztabaida moderatzen.



EZTABAIDA TALDEAK

EZTABAIDA TALDEAK

Goizeko azken saioa publikoaren iritzia jasotzera bideratua egon zen eta horretarako parte-hartzaileak eztabaida-talde mistoetan antolatu ziren jardunbide egokiak trukatzeko dinamikak bultzatzeko. Taldeen banaketan, parte-hartzaileen profilak eta jatorriak hartu ziren kontuan, eztabaida emankorragoa izan zedin.

Bi dinamikak osatu ondoren, ondorio orokorrak talde guztien ekarpenetatik abiatuta egin ziren. Puntu komunak, funtsezko ideiak eta etorkizuneko norabide posibleak nabarmendu ziren komunitate profesionalarentzat. Ondorio horiek ekitaldiaren emaitzen laburpen eraginkor gisa balio izan zuten.

Taldeen osatzea eta sarrera

15-20 laguneko taldeak antolatu ziren, hausnarketa errazteko asmoz. Ondoren, talde bakoitzetik ateratako ideiak ondorio orokorretan finkatu ziren antzekotasunak eta puntu komunak identifikatuz.

Dinamikak aurkezpen-saio labur batekin hasi ziren eta parte-hartzaile bakoitzak bere taldekideak ezagutzeko eta elkar ezagutzeko aukera izan zuen.

Fase hori erabakigarria izan zen konfiantza-oinarri bat ezartzeko eta ondorengo dinamiketan komunikazio eraginkorra errazteko.

6. IRUDIA. Lan taldeak Baroja Auditorioan lanean



1.DINAMIKA: Konexio profesionalak

Azalpena eta aurkezpenak

Lehen fase horretan, Workshoparen azalpen labur bat egin zen parte-hartzaileek jardueraren helburua eta egitura uler zitzaten. Gero, 5 minutu eman zituzten banakako aurkezpenetan. Bertan, parte-hartzaile bakoitzak bere burua aurkeztu zuen eta kide zen edo identifikatzen zen lanbide-talde nagusi bat aukeratu zuen.

Jardueran erabilitako mapak hiru eremu zentrokide izan zituen)6. IRUDIA), sarrerako saioetan aurkeztutako lanbide-taldeei dagozkien koloreetan banatuta)1. ERANSKINA).



6. IRUDIA. Talde dinamiketan erabilitako grafikak eta panelen ereduak

Lehenengo workshop-ean garatutako metodologiak hiru fase izan zituen eta horietan parte-hartzaile bakoitzak bere ikuspegia eta esperientzia eskaini zituen, ondoren gainerakoekin harremanetan jartzeko:

Talde profesionalaren autokokapena

Aurkezpenen ondoren, parte-hartzaile bakoitza lehentasunezko lanbide talde batean kokatu zen (zirkuluaren atal nagusia). Diziplina anitzeko profila izanez gero, elkarren osagarri eta/edo lotuak sentitzen ziren beste talde batzuetan kokatzeko aukera ere izan zuten.

Egungo laguntzaileak identifikatzea eta izan nahiko litezkeenak

Fase honetan, parte-hartzaileek une horretan beren lanetan parte hartzen zuten pertsoneri edo taldeei buruz hausnartu zuten eta ohiko lan-jardunean (zirkuluaren bigarren atala) zituzten lankidetzak aipatu zituzten (zirkuluaren bigarren atala)

Hirugarren etapa batean, etorkizunean beren praktika profesionala hobetzeko norekin konektatzea gustatuko litzaiekeen zehaztu zuten (zirkuluaren hirugarren atala).

Grafikoaren interpretazioa eta hausnarketa

Lehenengo dinamikaren amaieran, moderatzaileek hartu zuten hitza sortutako grafikoa interpretatzeko. Parte-hartzaileek identifikatutako konexioak eta erlazioak nabarmentzeko "*Noren falta sumatzen duzu hemen*" galderari erantzutean zentratu ziren, eta parte-hartzaileak animatu zituzten beren kolaboratzaile sarean inor garrantzitsua nahi gabe alde batera utzi ote zuten pentsatzera.

Zirkulu zentrokideetan oinarritutako ikuspegi horrek harremanak eta konexioak argi ikusten lagundu zuen eta parte-hartzaileei beren sare eta profesionalen egitura ulertzen lagundu zien.



2. DINAMIKA: Sareen artikulatzea

Taldeko bigarren saioan funtsezko hiru galderen erantzunak aztertu ziren:

"ZERTARAKO KONEKTATU?"

"NOLA KONEKTATU NAHI DUGU?"

"ZEIN ERREFERENTEK GIDA DEZAKETE GURE BIDEA?"

Esperientzia horretan parte-hartzaileek panel erraz bat erabili zuten, planteatutako hiru galderak eta post-it moduan jasotako erantzunak emateko leku nahikoa biltzen zituena. Taldeak hiru eta bost pertsonako bitarteko azpitaldeetan antolatu ziren eta denbora eman zitzaien planteatutako gai horiei buruz hausnartzeko eta ondorio zehatzak ateratzeko, erantzunak post-iten bitartez jasoz. Denbora amaitutakoan, azpitalde bakoitzeko ordezkari batek eztabaidetan sortutako ideiak aurkeztu zituen.

Ikuspegi parte-hartzaile horrek aukera eman zien parte-hartzaileei lotura profesionalen helburua zehatzean aztertzeko eta estrategia eraginkorrak diseinatzeko, beren sektorean lankidetzan aritzeko, adibide eta erreferente inspiratzaileetan oinarrituta.

7. IRUDIA. Arriaga Auditorioko lan-taldeak



Bigarren dinamika horretan, lehen workshop horretan garatutako metodologiak gida-galderek ezarritako fase desberdinak izan zituen:

ZERTARAKO KONEKTATU?

Motibazioak identifikatzea

Fase honetan, sektorean konexioak eta lankidetzak ezarri nahi izateko arrazoiei buruz hausnartzeko gonbita egin zitzaien parte-hartzaileei. Motibazio posibleak atera ziren, hala nola sektore gisa nortasun sendoa izatea, eskubide kolektiboen defentsa, profil eta gaitasun espezifikoen definizioa, bazkideen bilaketa, prestakuntza espezifikoa edo profesionalen kokapena.

"NOLA KONEKTATU NAHI DUGU?"

Konexio-estrategiak

Konexio-estrategia eta -ereduetan zentratu zen. Parte-hartzaileek konexio- eta lankidetzabideak aztertu zituzten, lehenengo galderan identifikatutako motibazioen arabera.

"ZEIN ERREFERENTEK GIDA DEZAKETE GURE BIDEA?"

Ereduak eta erreferenteak

Parte-hartzaileek beren sektorean nola konektatu nahi zuten eztabaidatu zuten. Ikusi zituzten edo ezagutzen zituzten erduei eta erreferenteei buruzko ideiak partekatu zituzten adibide gisa balio zezaketenak. Parte-hartzaileak azpitaldetan banatu ziren eztabaida hau burutzeko. Talde bakoitzak bere sektorerako motibazio eta elkarte-eredu garrantzitsuenak nabarmendu zituen eta gainerako parte-hartzaileei aurkeztu zizkien.



8. IRUDIA. Lan - taldeak bere emaitzak aurkezten bigarren dinamikan

2. DINAMIKAREN EMAITZAK

Jarraian, workshop honen bigarrena atalaren ondorio nagusiak aurkezten dira, planteatutako galderekin bat:

ZERTARAKO?

5 lantaldeetatik 14 arrazoi edo ideia nagusi atera ziren, eragileen arteko konexio-sareak ezartzeko beharra argudiatuz, ondoren azaltzen den moduan:

Ideiak elkarbanatzea eta partekatzea eta jardunbide egokiak trukatzeta

Sektorean inplikaturik dauden eragile profesional, instituzional eta akademikoaren arteko lankidetzak sustatzeko gune egokirik sortzeko. Horren guztiaren helburua kulturaren esparruan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko ideiak eta esperientziak partekatzea da. Horrelako lankidetzak batek hainbat testuingurutan inplementatu daitezkeen jardunbide egokiak identifikatzeko hobetzen du.

Elkar ezagutzeta, aitortzeta eta ezagutarazteta

Askotan ezagutzeko aukerarik ez duten profesionalen arteko topaketa eta komunikazioa errazteko. Horrek ezagutza-trukea sustatzen du, inplikaturik dauden eragileei profilen aniztasuna ezagutzeko eta haien kontaktu-sareak aberasteko aukera ematen diena. Era berean, funtsezkoa da hainbat proiektu eta ekimen ikusarazteko.

Erakundeekiko elkarrizketa erraztea eta kultura-politiketan eragitea

Sektoreko profesionalen eta kultura-politiken ardura duten erakundeen arteko elkarrizketa errazteko. Beharrezkoa da komunikazio-bide sendoak ezartzea erabakiak hartzean eragiteko eta sektorearen behar eta erronkekin hobeto bat datozen estrategiak sustatzeko.

Profil profesionalen bilaketa erraztea

Kulturaren arloan beharrezkoak diren profilak (diziplina anitzekoak) identifikatzeko. Akademikoen eta profesionalen arteko elkarreraginak askotariko trebetasunak dituzten lanbide-profilak bilatzea eta definitzea ahalbidetzen eta errazten du eta horrela kultura-proiektuetan espezializatutako profilak integratzea sustatzen da.

Etengabeko hobekuntza eta ezagutzen transferentzia

Kultura-kudeaketa etengabe hobetzeko eta lanbide-taldeen artean ezagutzak transferitzeko. Parte-hartzaile batzuen ustez, beharrezkoa izango litzateke topaketa hau edo beste mota batekoak antolatzen jarraitzea, sektoreko praktikak eta estrategiak eguneratuta mantentzeko.

Unibertsitatea eta mundu profesionala birkonektatzea

Kulturaren arloan akademiaren eta mundu profesionalaren arteko harremana estutzeko. Bi arlo horien arteko lankidetzak funtsezkoa da gaitasun eguneratuak eta garrantzitsuak dituzten etorkizuneko profesionalen prestakuntza bermatzeko.

Kontaktu-sare eraginkor bat sortzea

Arrakasta profesionalerako funtsezkoa den kontaktu-sare sendoa garatzeko. Horrek esan nahi du harreman esanguratsuak izan behar direla lankideekin, mentoreekin eta liderrekin. Ekitaldi, hitzaldi eta elkarte profesionaletan parte hartzea harreman-sarea zabaltzeko eta indartzeko modu bikaina izan daiteke.

Prestakuntza espezializatua

Prestakuntza espezializatua jasotzeko, funtsezkoa da etengabe eboluzionatzen ari den lanbide-ingurunean eguneratuta egotea. Etengabeko trebakuntzari esker, trebetasun eta ezagutza berriak eskura daitezke, eta, zalantzarik gabe, hobetu egiten dira karrera-aukerak eta sektore horri ekarpena egiteko gaitasuna.

Beharrak detektatzea eta konpontzea

Eremu bakoitzeko beharrak detektatzeko eta horiei aurre egiteko gaitasuna izateko. Sortzen ari diren joera eta erronkei adi egoteak eta premia horiek asetzeko irtenbide sortzaileak bilatzeak baliabide baliotsua eta sektoreak eskatutakoa izatea dakar.

Prozesuetan eta ez proiektuetan lan egitea

Prozesu iraunkorrak ezartzeko, proiektu batean ikasitako ikasgaiak etorkizuneko proiektuetan modu eraginkorrean aplikatzen direla ziurtatuz. Prozesuen kudeaketa epe luzerako estrategia bat da, eta entregan eraginkortasuna eta kalitatea hobetzen ditu.

Esperientziak ez errepikatzea eta ikaskuntzak optimizatzea

Aurreko esperientzietatik ikasteko eta akatsak errepikatzea saihesteko. Ikasitako ikasgaiak partekatzean, etengabeko hobekuntzaren kultura sustatzen da, non ezagutzak etorkizuneko ahaleginak optimizatzeko erabiltzen diren.

Lan esparru edo eremu emergenteak artikulatzea

Sortzen ari diren eremuetan aukerak sortzeko. Arlo berriak aztertzeko eta testuinguru esploratu gabeetan dauden trebetasunak eta ezagutzak aplikatzeko moduak bilatzeko prest egoteak aukera ematen du aukera profesionalak zabaltzeko eta ate berriak irekitzeko.

Profesionalizazioa, aurrerapena eta balioa ematea

Sektorean estandar etiko eta tekniko altuak ezartzeko. Alderdi horrek sektorearen aurrerabideari laguntzen dio eta balio esanguratsua ematen du.

Baliabideen aprobetxamendua

Eskura dauden baliabideen erabilera optimizatzeko, denboraren, aurrekontuaren eta giza baliabideen kudeaketa eraginkorra barne. Baliabideak eraginkortasunez erabiltzea funtsezkoa da helburuak eraginkortasunez lortzeko.

NOLA?

Aurreko proposamenak nola bideratu aztertzen zuen puntu horri dagokionez workshop-ean jasotako ideia edo proposamen nagusiak honako hauek dira: aldizkako eztabaidak egitea, profesionalen direktorio bat sortzea, harreman pertsonalak sustatzea, lankidetzak publiko-pribatua, plataforma digitalak erabiltzea eta helburu zehatzak zehaztea.

Aldizkako eztabaidak

Aldizkako eztabaidak eginez, funtsezkoak baitira sektorea gai garrantzitsuei eta goraka doazen joerei buruz eguneratuta mantentzeko. Eztabaida horiek komunikazioa errazten dute ondareari eragiten dioten gai kritikoen inguruan, eta baterako irtenbideak sortzeko gaitasuna dute.

Profesionalen direktorioa

Ondarean espezializatutako profesionalen direktorio bat sortuz, adituen eta laguntzaileen identifikazioa erraztuko lukeena. Direktorio hori tresna baliotsua izan liteke harremanak ezartzeko eta ondarearekin lotutako proiektuetan eta programetan lankidetzak sustatzeko.

Harreman pertsonalen alde egitea

Harreman pertsonal sendoak eta konfiantzazkoak sustatuz, lankidetzak eta ezagutzen transferentzia modu eraginkorragoan susta dezaketenak.

Lankidetzak publiko-pribaturako bideak

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarte berdinzaleagoa sustatuko duten lankidetzak publiko-pribatuko kanalen bidez, sektore pribatua zerbitzuen hornitzailetzat hartu beharrean. Horrek berekin ekar lezake sektore pribatua proiektu eta ekimenei sustatzaile bihurtzea, eta horrek ondarea zaintzeko eta sustatzeko inplikazio eta konpromiso handiagoa bermatuko luke.

Plataforma digitalak

Plataforma digitalak erabiliz, lankidetzak eta informazioa modu eraginkorrean trukitzea ahalbidetuko luketenak. Plataforma horiek eztabaida-foroak, baliabide-biltegiak eta sareko lankidetzak-tresnak izan ditzakete, sareko lana errazteko.

Lantaldeak

Sektorea hobetzen lan egiten duten lantaldeak antolatuz. Emandako argudioetako bat da, talde horien iraunkortasuna bermatze aldera, egindako lanak lanaldiaren barruan egon beharko lukeela, edo laguntza espezifikoen dirulaguntza ere jaso beharko lukeela. Bestalde, talde horiek eraginkortasunez garatzeko baldintza batzuk argudiatzen dira:

Helburu zehatzak eta lorgarriak

Helburu espezifikokoak eta lorgarriak zehaztu beharko lirateke, ezarritako taldeek denbora jakin batean lan egin ahal izateko. Helburuek errealistak eta neurgarriak izan beharko lukete, taldeek beren aurrerapena eraginkortasunez ebaluatu ahal izan dezaten.

Lantaldeen Koordinazio Orokorra

Taldeek taldeak modu eraginkorren ikuskatuko, zuzenduko eta koordinatuko dituen egitura izan beharko lukete. Horrela, ahalegin guztiak helburu komunitara bideratuta egotea bermatuko litzateke.

Emaitzen aurkezpena eta etorkizuneko helburuak ezartzea

Lantaldeetan lortutako emaitzak urteko topaketa batean aurkeztu beharko lirateke. Topaketa horrek lorpenak eta esperientziak partekatzeko aukera emango luke, baita jarraitu beharreko helburuak zehaztekoa ere. Horrek etengabeko hobekuntza eta garapen-ziklo bat sortuko luke.

Parte hartzeko datu-basea eta datu-base dinamikoa

Partaidetzazko datu-base dinamikoko baten bidez, ondarearen arloko proiektu, ikerketa eta baliabideei buruzko informazio garrantzitsua bilduko lukeena. Funtsezko tresna izango litzateke komunitatearentzat, inplikaturako eragileen arteko lankidetzaren eta ezagutzen hedapena sustatuko babilutzeko.

Elkargo profesionalen elkarte eta partaidetza


Kultura-sektoreko elkarte eta elkargo profesionalakiko lankidetzaren aktiboaren bidez; horrek ondarearen komunitatea indartuko luke, eta sektorearekin lotutako gaietan ordezkaritza eta ahots handiagoa izatea ahalbidetuko luke.

ERREFERENTEAK

Eztabaidaren azken fasean, lankidetzaren-eredu edo abiapuntu gisa aipaturako hainbat adibide eman ziren, kultura ondarearen sektorerako konexio-eredu posibleak definitzen eta lantzen jarraitzeko.



Urriaren 6an BIZKAIA ARETOAN ospatu zen jardunaldiak profesionalen, akademikoen eta kultur erakundeetako ordezkarien komunitate lagin interesgarria bildu zuen (1. **GRAFIKA**). Kultura ondareko esparru oso desberdinetatik 100 bat pertsona bertaratu ziren topaketara.




1. GRAFIKA. ZEIN TALDEETAN KOKATZEN DUZU ZURE BURUA?

Parte-hartzaileei egindako mentimeter inkesta bere lan esparrua kokatzeko

Jardunaldiaren helburua lankidetzaz sustatzeko eta errazteko lehen urrats bat ematea izan zen, ideiak eta jardunbide egokiak trukatzeko, erakundeekiko elkarrizketa errazteko, unibertsitatearen eta mundu profesionalaren arteko lotura hobetzeko eta kultura-politikan eragina sustatzeko ere.

Egunaren amaieran inkestatutako parte-hartzaileen (65) **gehiengoaren arabera jardunaldia interesgarria izan zen** (2. **GRAFIKA**) eta topaketak plataforma eraginkorra eskaini du lankidetzaz sustatzeko, ideiak trukatzeko eta kultur komunitatea indartzeko.

2. GRAFIKA. JAURDUNALDIAREN ERABILGARRITASUNA



Ekitaldian zehar, kultura ondarearen eremuan lankidetza eta iraunkortasuna sustatzeko hainbat estrategia eta praktika eraginkor identifikatu ziren, etorkizunean lantzen jarraitzeko oinarri gisa erabili beharko liratekeenak.

Workshopean lortutako emaitzen azterketari dagokionez, pertzepzio orokorra da txostenean zehar aipatutako estrategiak inplementatzeak aukera emango lukeela kontaktu-sare sendo bat garatzeko, trebetasun espezializatuak eskuratzeko, beharrak hautamateko eta asetzeko, prozesuak hobetzeko, esperientziak ez errepikatzeko, sortzen ari diren eremuak aztertzeke eta profesionalizatzeko.

Gainera, esparru profesionalean aurrerapena eta balioa ematea sustatuko litzateke eta eskura dauden baliabideen erabilera optimizatuko litzateke. Estrategia horiek funtsezkotzat jo dira lan-ingurune lehiakor eta etengabe aldatzen ari den honetan arrakasta izateko.

Bestalde, eztabaidaren ondoren agerian geratu da ondarearen eremuan lantaldeak antolatzeke, nahiz eta oso interesgarriak izan, elkarlana, iraunkortasuna eta eraginkortasuna sustatuko dituen ikuspegi estrategiko bat beharko litzatekeela.


Halaber, aipatutako estrategiak, hala nola aldizkako eztabaidak, profesionalen direktorioak, lankidetza publiko-pribatua, plataforma digitalak eta helburu zehatzak ezartzea, funtsezkoak dira arlo horretan aurrera egiteko.

Izatez, talde gehienek uste dute gomendio horiek ezartzeak gure kultura-ondarea modu eraginkor eta arrakastatsuagoan kudeatzea ekarriko lukeela.

Hemen dokumentatutako topaketa elkarlaneko egitura egonkor eta eraginkorren etorkizuneko garapenerako abiapuntu gisa eratu nahi bada ere, jardunaldiari buruzko **azken ebaluazioko inkestatik lortutako erantzunei dagokienez**, ekitaldi horren emaitzek eta ondorioek etorkizunean antzeko jarquerak antolatzen jarraitzearen garrantzia babesten dute. Izatez, gehienek beste jardunaldi batean parte hartu o

lukete **3. GRAFIKA**).

3. GRAFIKA. BESTE JAURDUNALDI BATEAN PARTE-HARTZEA




Profesionalen, akademikoen eta kultura-erakundeen arteko lankidetzaren mota horrek kultura-sektore dinamikoagoa eta garapen jasangarriantzez bideratuagoa lortzen lagunduko du.

Azken ondorio gisa, ikusten da gure sektorearen barruan sareak sortzeko funtsezko zeregina izan dezakeela pertsonak konektatzean, aniztasuna eta lankidetzaren sustatzean, baliabideetarako sarbidea erraztean eta ondarea modu guztietan sustatzen laguntzean.

Topaketara bertaratu diren gehienek uste dute lankidetzaren interkonektatzeko eta sustatzeko sare bat sor daitekeela, sektorea etengabe hazteko eta aberasteko funtsezko faktore gisa ulertuta.

Eragile sarea sortzeko interesa argia izan da (4. GRAFIKA). Gehienek interesa dute eragile sare bat sortzeko aukeran, kasu batzuetan sektoreka edota lurraldeka.



4. GRAFIKA. ERAGILE SAREA SORTZEKO INTERESA

Etorkizunean kontuan hartzekoak izan dira ekarpenetan egindako zenbat ohar eta iruzkin jaso dira baita ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile eta kolaboratzaile guztiei jardunaldi honetan erakutsitako konpromisoagatik eta egindako ekarpenagatik, zalantzarik gabe kultura-ondarearen eremua eta etorkizuneko aurreikuspenak aberastu dituztelako.

KULTURA ONDAREAREN EKOSISTEMAREN PROFESIONALEN TALDEKATZE PROPOSAMENA



**KULTURA
ONDAREAREN
KUDEAKETA**
Gestión de
Patrimonio

Talde hibridoa, profil eta jatorri desberdineko profesionalak osatua, Kultur Ondarea kudeatzen duten hainbat alorrekin zerikusia duena. Lan-arloak: **Kultura eta ondare proiektuen kudeaketa eta aholkularitza // Ondarearen hedapena eta interpretazioa // Kulturaren/ondarearen inpaktua neurtzea eta datuak ebaluatzea // Ondarearen kudeaketan eskubide intelektualen legeria eta babesa (eskubideen kudeatzailea) // Diru-laguntzak eta laguntzak // Kultura-ondarearen sustapena // Kultura-, ondare- eta turismo-aholkulariak.**

Prestakuntza: Artearen Historia, Historia, Soziologia, Zientzia Politikoak, Zuzenbidea edo Enpresa Zientziak, Arte Ederrekin lotutako titulazioak, besteak beste.

Grupo híbrido formado por profesionales de diferente perfil y procedencia que se relaciona con diversas áreas de gestión del Patrimonio Cultural.

Áreas de trabajo: Gestión y asesoramiento de proyectos culturales y patrimoniales // Difusión e interpretación de patrimonio // Medición de impacto de la cultura/patrimonio y evaluación de datos // Legislación y protección de derechos intelectuales en la gestión de patrimonio (gestor/a de derechos) // Subvenciones y ayudas // Promoción del patrimonio cultural // Asesores/as culturales, de patrimonio y de turismo

Formación: Historia del Arte, Historia, Sociología, Ciencias Políticas, Derecho o Empresariales, titulaciones relacionadas con las Bellas Artes, entre otros.

**HISTORIA eta
ARKEOLOGIA**
Historia y
Arqueología

Tradizioz Kultura, Historia eta Arkeologia Ondareari lotutako hainbat arlotan garrantzi berezia duten profesionalen taldea.

Prestakuntza Profesional gehienak Artearen Historia edo Historian, Historian eta Geografian trebatuta daude eta Arkeologian espezializatuta. Euskal Herrian gaur egun ez dago Arkeologiako gradurik, ez eta bere prestakuntza integralarekin zerikusia duten berriazko master ofizialik ere.

Grupo de profesionales de especial relevancia en diversas áreas tradicionalmente vinculadas al Patrimonio Cultural Histórico y Arqueológico.

Formación En su gran mayoría este grupo de profesionales está formado en Historia o Historia del Arte, Historia y Geografía y especializados en Arqueología. En el País Vasco no existe actualmente un Grado en Arqueología ni másteres oficiales específicos relacionados con su formación integral.

**HEZKUNTZA
FORMAKUNTZA**
Educación y
Formación

Hezkuntza FORMALAREN etapekin (irakaskuntza ofizialak) eta EZ FORMALAREKIN (museoak, arte-zentroak, ondarea interpretatu, kudeatu eta zabaltzeko zentroak) lotutako profesionalak osatutako taldea.

Prestakuntza: Kultur Ondareko hainbat arlotako lizentziaturak, graduak, masterrak eta doktoregoak.

Grupo constituido por diferentes profesionales relacionados con las diferentes etapas de la educación FORMAL (enseñanzas oficiales) así como NO FORMAL (museos, centros de arte, centros de interpretación, gestión y difusión de patrimonio).

Formación: Licenciaturas, grados, másteres y doctorados relacionados con diversas áreas del Patrimonio Cultural.

**KULTURA
ERAKUNDEETAKO
LANBIDEAK**
Profesiones
vinculadas a
instituciones

Dokumentazioarekin eta Kultur Ondareko erakundeetan artxiboa eta abarrekin lotutako arlo espezifikoetan lan egiten duten profesionalak osatutako taldea. artxibozaina, liburuzaina, dokumentalista, etab.

Prestakuntza: Kultur Ondareko arloekin zerikusia duten lizentziatura, gradu, master eta doktoregoak eta berariazko prestakuntza osagarriak ere.

Grupo constituido por profesionales que desarrollan su labor en áreas específicas vinculadas con documentación, archivo, etc. en instituciones del Patrimonio Cultural.

Archivero/a, Bibliotecario/a, Documentalista, etc.

Formación: Licenciaturas, grados, másteres y doctorados relacionados con dichas áreas del Patrimonio Cultural así formaciones complementarias específicas.

**KOMUNIKAZIO
TEKNOLOGIA
BERRIAK**
Comunicación y
Nuevas
tecnologías

Talde hau eta bere jarduera talde profesional espezializatutzat hartu dira, teknologia berriek bildumak digitalizatzeko, obra ez-materiala kontserbatzeko eta ondarea zabaltzeko eta interpretatzeko duten eraginagatik. Talde honetan sartuko lirateke, halaber, dokumentazioarekin eta ondarearen erregistroarekin zerikusia duten praktika eta alderdi teknikoak (argazkigintza, ikus-entzunezkoak, fotogrametria, 3D eskaneatzea...).

Prestakuntza: Lizentziatura, Gradua, Masterra, Arte Ederretako Doktoretza (arte eta teknologia), Informatika edo Ingeniaritza eta diseinu grafikoko Fakultateetan, Diseinuko Goi Mailako Eskoletan eta Ikus-entzunezko Lanbide Heziketan prestatutako profilak.

Este grupo y su actividad se han considerado grupo profesional especializado debido el impacto que están teniendo las nuevas tecnologías tanto para la digitalización de colecciones, la conservación de obra inmaterial así como en la difusión e interpretación de patrimonio. En este grupo se integrarían también aquellas prácticas y aspectos técnicos relacionados con la documentación y registro de patrimonio (fotografía, audiovisuales, fotogrametría, escaneado 3D...)

Formación: Licenciatura, Grado, Máster, Doctorado en Bellas Artes (arte y tecnología), Informática o Ingeniería y perfiles formados en diseño gráfico en Facultades de Bellas Artes y Escuelas Superiores de Diseño así como en Formación Profesional audiovisual.

**ARTISAUTZA
eta
TRADIZIOAK**
Artesanía y
tradiciones

Artisauek osatutako taldea, ondare immaterialtzat hartzen diren artisau-praktiken transmisioa sustatzen duena eta/edo ondare material higigarri edo higiezinaren kontserbazioarekin, zaharberritzearekin edo zaharberritzearekin lotutako alderdi materialak teknikoki gauzatzen parte hartzen duena.

Prestakuntza: Arte Ederretako lizentziatura eta Arte edo Sorkuntza eta Diseinuko gradua; unibertsitatez kanpoko formazioak arte-eskoletan, diseinu-eskoletan, prestakuntza espezializatuko zentroetan (eremu ez-formala, akademiak, autodidakta).

Grupo constituido por artesanos y artesanas que fomenta la transmisión de prácticas artesanales consideradas patrimonio inmaterial y/o participan en la ejecución técnica de aspectos materiales relacionados con la conservación, restauración o rehabilitación del patrimonio material mueble o inmueble.

Formación: Licenciatura en Bellas Artes y Grado en Arte o Creación y Diseño; formaciones extrauniversitarias en escuelas de arte, escuelas de diseño, centros de formación especializada (ámbito no formal, academias, formación autodidacta)

KONTSERBAZIOA ZAHARBERRITZEA

Conservación
Restauración

Artea, kultur ondarea, ondare etnografikoa edo interes kultureko edozein adierazpen motaz arduratzen diren kontserbadore eta zaharberritzailez osatutako taldea.

Prestakuntza: Arte Ederretako lizentziadunak (Babes Berezikoko espezialitateak 2010era arte), Kultur Ondasunak kontserbazio eta Zaharberritzean graduatuak (2010-2022), Goi Mailako Eskoletako diplomadunak (Kontserbazio eta Zaharberritze lanak).

Grupo constituido por conservadores/as y restauradores/as de arte, bienes culturales, patrimonio de carácter etnográfico o cualquier tipo de expresión de interés cultural.
Formación: Licenciados/as en Bellas Artes (especialidad en Conservación-Restauración hasta el 2010), Graduados/as en Conservación y Restauración de Bienes Culturales (2010-2022), Diplomados/as en escuelas superiores de conservación-restauración de bienes culturales.

APLIKATUTAKO ZIENTZIAK

Ciencias
aplicadas al
Patrimonio

Ikerketa tekniko-material, dokumentazio eta diagnostiko prozesuetan parte hartzen duten zientzialariz osatutako taldea, baita Kultura Ondarea edozein diziplinatan kontserbatzeko bitarteko eta alternatiba berriak ikertzen ere.

Prestakuntza: taldea Zientzietan (Lizentziatura edo Gradua) prestatutako profesionalak osatzen dute. Masterra eta doktoretza kimikan; Lizentziatura, Masterra eta Doktoretza Biologian; Lizentziatura, Gradua, Masterra eta Doktoretza Fisikan, Geologian, etab.

Grupo constituido por científicos/as que participan en los procesos de estudio técnico-material, documentación y diagnóstico, así como en la investigación para nuevos medios y alternativas para la preservación de Patrimonio Cultural en cualquiera de sus disciplinas.
Formación: el grupo lo integran profesionales formados en Ciencias: Licenciatura o Grado. Máster y Doctorado en Química; Licenciatura, Grado Master y Doctorado en Biología; Licenciatura, Grado, Máster y Doctorado en Física, Geología, etc.

KULTURA ONDAREAREN INTERPRETAZIOA

Interpretación de
Patrimonio

Talde honek intelektualki eta emozionalki konektatu nahi ditu bisitaria baliabide edo ondare-enklabe baten esanahiekin, kontserbazioarekiko jarrera positiboa sustatuz. Lan-arlo honek bilakaera garrantzitsua izan du bere printzipioei eta lan-teknikei dagokienez, eta zeharkakotasuna dela-eta, ondarearen kudeaketarekin zerikusia duten hainbat profesional eta sektore inplikatu ditu.* Beraz, interpretazioa, testuinguru jakin batean komunikazio-estrategia izateaz gain (ondare-garrantziko lekua eta une jakin batean bisitatzen duen publikoa), kudeaketa-tresnatzat ere hartzen da.**

Prestakuntza: taldea hainbat alorretako profesionalak osatzen dute: Hezkuntza, Historia, Artearen Historia, Komunikazioa,

Grupo que busca conectar intelectual y emocionalmente al visitante con los significados de un recurso o enclave patrimonial, promoviendo una actitud positiva hacia su conservación. Se trata de un área de trabajo que ha experimentado una importante evolución en cuanto a sus principios y técnicas de trabajo, implicando por su transversalidad a diversidad de profesionales y sectores relacionados con la gestión del patrimonio. *** Por tanto, la interpretación, además de ser una estrategia de comunicación en un contexto definido (un lugar de importancia patrimonial y el público que lo visita en un momento dado), es también considerada como un instrumento de gestión.

Formación: el grupo lo integran profesionales provenientes de diversos campos: Educación, Historia, Historia del Arte, Comunicación.

ARKITEKTURA
Arquitectura

Profesional kolegiatuen taldea, batez ere eraikitako ondarea eta ondasun higiezinaren berreraikitze, zaharberitze eta zaintzeko lanetan parte hartzen duena.

Prestakuntza: Arkitekturako lizentziatura eta gradua.

Grupo de profesionales colegiados que participa principalmente en la reconstrucción, rehabilitación y otras tareas dirigidas a la preservación del patrimonio construido e inmueble. Formación: Licenciatura y Grado en Arquitectura.

ARTEA eta SORKUNTZA
Arte y Creación

Ondare-kontzientzia duten praktika kultural materialen edo inmaterialen transmisioa sustatzen duten artistek eta sortzaileek osatutako taldea, edo ondarearen kontserbazioarekin/zaharberitzearekin/birgaitzearekin lotutako alderdi materialen exekuzio teknikoan parte hartzen dutenak hainbat diziplinatatik (eskultura, pintura, bideo-sorkuntza, argazkia, artxiboa, elkarrizketak, etab.). Presentzia hori hainbat lan-eremutan dago: Museologia, museografia, erakusketen antolaketa/Komisariotza /Ondarearen erakustaldiarekin eta erakusketarekin lotutako alderdi sortzaile eta teknikoak/Sorkuntzarekin eta manufakturarekin lotutako alderdi teknikoak teknika artistikoen bidez (eskultura, modelaketa, pintura, marrazketa, etab.)

Prestakuntza: Arte Ederretako Lizentziatura eta Arte edo Sorkuntza eta Diseinuko Gradua; unibertsitatez kanpoko prestakuntza arte-eskoletan, lanbide-heziketako zentroetan, diseinu-eskoletan, prestakuntza espezializatuko zentroetan (argazkigintza-zentroak, zinema-eskolak, lanbide-heziketako zentroak...).

Grupo constituido por artistas y creadores/as que fomentan la transmisión de prácticas culturales materiales o inmateriales con conciencia patrimonial o participan en la ejecución técnica de aspectos materiales relacionados con la conservación/restauración/rehabilitación del patrimonio desde diferentes disciplinas (escultura, pintura, video-creación, fotografía, archivo, entrevistas, etc.). Su presencia se localiza en diversas áreas de trabajo: Museología, museografía, organización de exposiciones / Comisariado / Aspectos creativos y técnicos relacionados con la exhibición y exposición de patrimonio / Aspectos técnicos relacionados con la creación y manufactura mediante técnicas artísticas (escultura, modelado, pintura, dibujo, etc.)

Formación: Licenciatura en Bellas Artes y Grado en Arte o Creación y Diseño; formaciones extrauniversitarias en escuelas de arte, centros de formación profesional, escuelas de diseño, centros de formación especializada (centros de fotografía, escuelas de cine, centros de formación profesional, ...).


BESTEAK
Otros

Merkatuaren, administrazioaren eta egungo joeren eskarira egokitzeko sortu diren perfil profesionalak osatzen dute taldea, eta kultura-ondarea dute helburu, hainbat eremutan: kudeaketa, kontserbazioa, zabalkundea, etab.

Artelanen garraioa/Artelanen muntaketa/Artelanen aseguruak/Ondare eta eskubide artistikoen babesarekin lotutako zuzenbideko espezialista/Argiztapen-enpresak/Soinu-enpresak/Askotariko lanbide eta lanbide osagarriak.

Grupo constituido por perfiles profesionales que han ido surgiendo para adaptarse a la demanda del mercado, de la administración y de las tendencias actuales y que tienen como objeto de trabajo el patrimonio cultural, en sus distintos ámbitos de gestión, conservación, difusión, etc.

Su presencia se localiza en diversas áreas de trabajo relacionadas con: Transporte de obras de arte. / Montaje de obras de arte / Seguros de obras de arte / Especialista en Derecho relacionados con la protección de patrimonio y derechos artísticos / Empresas de iluminación / Empresas de sonido / Profesiones y oficios auxiliares diversos.



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES

